

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Uztaileko uholdeek kaltetutako azpiegituren konponketak amaitu dira Baztanen

Nafarroako Gobernuak 990.000 euroekin finantzatutako jarduerak bisitatu ditu Esparza kontseilariak

Martes, 16 de diciembre de 2014

Iragan uztaileko uholdeek kaltetutako Baztango azpiegituren konponketak amaitu berri dira. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparzak jarduera horiek bisitatu ditu. Obrek 1.419.998 euroko aurrekontua behar izan dute guztira, eta kopuru horretatik Nafarroako Gobernuak 990.478 euroko diru-laguntza eman du Toki Azpiegitura Planen eskutik (larrialdi-prozeduran sartu ziren),



Esparza kontseilaria eta gainerako agintariak, Elbeteko zubian (Baztan).

Bisitan Baztango alkate Garbiñe Elisegik eta Toki Administrazio kontseilari Francisco Pérezek ere parte hartu dute.

Jarduerak harri-lubeten hormetan egin dira, arekak sendotu, garbitu eta eraikitzen eta fabrikako obrak berrezartzen, honako leku hauetan: Larretakoborda, Dorretxipikoborda, Kastonekoborda, Malkoa zubia, Aritzakun-Urritzate, Apate zubia, Mapitxenborda, Elizondo-Elbete zubia, Arraiozko zubia, Maxaborroborda, Zelaietakoborda, Beartzun, Gamiokoborda, Gorramendi-Estebenekoborda, Anitz zubia eta Lekueder zubia.

Elbeteko errotako zubia

Gaur goizean bisitatutako jardueretako bat Elbeteko errotako zubia da. Uholdeek kalte handiak eragin zizkion, eta hura berriz eraikitzeko ibilgua desbideratu behar izan zen atagiak jarritz. Ezkerreko eta erdialdeko begietako gangetako harlangaitz-horma ere eraitsi da, hormigoia armatuko zola eta pretilak barne.

Gainera, pilen zimendatzea sendotu da pilaren inguruan 50 cm zabaleko hormigoizko galanda bat eraikiz, ondo dagoen haitzera eramateko behar besteko garaierarekin, eta eroritako zubi-bularrak birgaitu dira paramentuen antzeko harlanduzko lanarekin, hormigoiarekin estaliz. Berreraikitako beste elementu batzuk zati batean eraitsitako pila eta harlangaitz-hormadun paramentuak.

Enkofratuta jarritako harlangaitz-hormako harriarekin egindako ganga xaflatu da ere, eta aurrez egindako harlangaitz-hormako harrizko gangaren gainetik hormigoi armatuko egitura bat eraiki da, 15 cm lodiko hormigoi armatuko zolaz gainera.

Lan osagarriak ere egin dira: egiturako belarrak, sastrakak, sustraiak eta zuhaixkak kentzea; harlangaitz-hormetako fabrika garbitu eta haren bete-lana egitea, kare hidraulikoko morteroarekin; obrak kaltetutako tokiak leheneratzea berriz landaretza jarriz; eta ibaiertzak garbitu eta fintzea, pilatutako zaborra bildu eta kenduz.

Aipatu behar da obra hori Toki Inbertsioen Planean aitortutako larrialdian sartu dela larrialdi-prozeduraren bidez, 305.088 euroko aurrekontu finantzagarriarekin, eta 213.562 euroko ekarpenarekin % 70.

Salbuespen fiskalak

Bestalde, gogora ekarri behar da Nafarroako Gobernuak ere laguntzak prestatu dituela, uholdeek kaltetutako pertsona fisiko nahiz juridikoei zerga-salbuespenak eginez. Laguntza horiek izenpetutako aseguru-polizetako konpentsazioekin bateragarriak eta subsidiarioak dira, hala badagokio, bai eta Estatuan edo Europa-mailan eman daitezkeen laguntzekin ere; kontzeptu horiengatik laguntzak ezingo du inoiz izandako kalteen zenbateko guztia gainditu.

Gainera, Foru Gobernuak Espainiako Gobernuari kaltetuei aparteko laguntzak ematea eskatu zion, etxebizitza eta lokalen kalteetarako jadanik badiren ohiko laguntzez gain (307/2005 Errege Dekretuaren babesean).